

Hiztegia irakasteko teknikak*

ISP Nation

Ikasleari hitz berrien esanahia ulertezazteko, hona hemen bide batzu.

Demostrazioa:

- Objektua ala honen irudia erakutsiz.
- Keinuz.
- Ekintza batez.

Irudiak:

- Argazkiak, marrazkiak arbelean, al-dizkari eta egunkarietako irudiak...

Azalpenak:

- Deskribapenak.
- Sinonimo eta antonimoak.
- Hitza testuinguru ezagun batean erabiliz.
- Itzulpena.

Hitzaren forma eta beronen esanahia elkarri erantsita aurkezten badizkiogu, ezagupen hau irmoki lotuta geratuko da ikaslearen baitan.

Interesa sortarazteko teknikak

Hiztegia ikasteko behar duen aditasun eta arreta osoa nekez lortuko du ikasleak, horretarako interesa eta gogo berezia sortarazten ez badugu berarengan. Nola suspertu interes eta gogo bizi hori?

1. Hitzaren forma lortzeko eragozpenak ezarri ikasleari.

2. Hitzaren esanahia jakiteko eragozpenak ezarri.

3. Hitza eta esanahiaren arteko lotura eragotzi.

Eragotzi hitzaz zera adierazi nahi dut: irakasleak ikasleari ez diola bestegabe, berehala eta zuzenean *erantzuna* (hitza-ren forma, esanahia edota forma gehi esanahia) erraztu behar. Ikaslea horretan saiatzera behartuko du, aurrez dakienaz edo irakasleak emandako zantzuez baliatuz, hitza eta beronen esanahia aurki dezan. Beraz, ikasleak bere adimena eta dohai interpretatzaileak erabiliko ditu zeregin horretan; ikasle eta irakaslearen arteko joko bat da. Irakasleak kontu hartuko du jokoaren zailtasuna neurtzerakoan; ikaslearen irrika suspertzeko beste zailtasuna behar du; zaillegi egingo balu, berehala etsiko bait luke ikasleak; irakasleak ikasleari lagunduko dio joko irabazteko gai dela ikusten.

Hitzaren hiru ikuspegiak (forma, esanahia, lotura) neurri egokian zailtzeko, bide praktikoa batzu aipatuko ditut.

1. Hitzaren forma ikas/irakaste bidean eragozpen batzu:

a) Hitzaren egitura hautsi: letrak nahasi, azpikoz gora edo atzekoz aurre

* Ingelesean «Techniques for teaching vocabulary», *English Teaching Forum* (12. bol., 3. zenb., 1974) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulua eta berrargitaratua.

idatzita eman. Edo hitzaren letrak nahas-mahas idatzi arbelean; ikasleek gero banan-banan markatuko dute zein den lehen letra, zein bigarrena... hitza osotu arte. Ariketa hau errazteko, irakasleak behin bederen hitz hori ahoska lezake.

b) Hitzaren zatiak identifikagaitz aurkeztu. Kode berezi batez idatzi hitza; ikusi gabe, ukimenaren bitartez adierazi, edota irakasleak hitza hormari begira ahoskatu.

c) Ikasleak zenbait aukera posiblearen artean hautatu behar. Testu idatzi bat eman ikasleari; testuaren bukaera zenbait hitzen esanahiak agertzen dira; ikasleak testuan aurkitu behar ditu esanahiei dagozkien hitzak. Ariketa hau errazagotzeko, hitzak testuan eta testu azpiko zerrendan orden berean eman; zenbat eta ordena nahasiago, zailago. Beste errazbide bat: esanahiari aldamenean, dagokion hitzaren letra bakoitzeko, marraz txo bat ipini; hitzaren lehen letra eman eta gainontzekoen orde marraz txoak ipiniz, errazago oraindik. Mota honetako beste ariketa bat: hitz multzoa idatzi arbelean; hitz hauetako bat irakasleak arin eta ozen esan; ikasleak entzundako hitza zein den markatu behar du arbelean. Ariketa honen eraginkortasuna irakaslearen prozedura bizkorrean dartzatza.

2. Hitzaren esanahia irakasterakoan, trabak ipini dakizkioke ikasleari, errazegi identifika ez dezan. Adibidez, gauzak erabiltzen badira, zapi batez estali eta ikasleak, ukituz, itxuraz... igerri beharko dio zer den. Edota ikasleek, begiak itxita, gauza horrek mahaia jotzean egiten duen hotsetik antzemango diote zer den. Hitzaren forma ezezaguna denean, irakasleak ikasaioan zehar hitz hori zenbait aldiz errepikatuko du eta ikasleek esanahia emango, seinalatuz, marraztuz edo itzuliz.

Irakasleak ikasleei zerbaiten esanahia keinuz edo portaeraz adierazten denean, ekintza hauek ilun samarrak izan daitezke eta ikasleek hitzaren esanahia

txandan-txandan asmatuko dute. Irakasleak gero emaitza frogatu egin beharko du, bada ez bada ere hitzaren itzulpena ama-hizkuntzan emateko eskatuz.

Marraskiz baliatzen denean, irakasleak arbelean puntu batzu marraz ditzake, ikasleak, txandaka, puntu horiek elkarri lotuz, hitzaren esanahia osa dezan. Joko hau errazago litzateke puntuak zenbakiak ezarriz, edota irakasleak ikasleari adieraziz puntuok oker ala zuzen lotu dituen. Jokoa zailagotu nahi bada, hitzaren esanahia adierazteko marra bakar bat egiteko aukera emango zaio ikasleari eta aurrera jarraitzen utziko zaio marra hori ondo egiten badu. Irakasleak erreporteak erabiltzen dituenean, ikaslea, begiak itxita, saiaturiko da hauek identifikatzen.

Azalpen mintzatuak egiten dituenean, irakasleak hitz formaren irakaskuntzan interesa sortarazten erabilitako teknikak erabil ditzake. Adibidez, esanahia (sinonimoak, antonimoak, ama-hizkuntzan sinonimoak, azalpena...) kode berezian edota letrak nahastuz idatz dezake. Edo, esanahia idazterakoan, letra batzu kendu. *Zer da?* joko dugu beste teknika erabilgarri eta egoikia. Hemen irakasleak ikasgai den hitzari buruz argibide batzu ematen ditu; lehen argibideak nahiko orokor eta arruntak izango dira, ikasleari gauzak gehiegi erraztu gabe. Hona adibide bat. *Hozkailu* hitzaren esanahia ez dakite oraindik ikasleek. Ohartu irakasleak esaldi bakoitzean hitz berri hori errepikatuko duela:

- Hozkailua oso praktikoa da.
- Hozkailua handia da.
- Hozkailua zuria izaten da gehienetan.
- Hozkailuak atea dauka.
- Hozkailua elektrizidadez baliatzen da.
- Hozkailuan hotz egiten du.
- Hozkailuak izotza egiten du.
- Jendeak janariak gordetzen ditu hozkailuan.

Artikuluaren gehigarria *

1. *Demostrazioa, irudiak, azalpenak* hiru izenburu hauen pean, hitz berrien esanahia ikasleei errazteko zenbait bide proposatzen ditu idazleak.
 - a) Era horietan irakas daitezkeen hitzen adibide batzu eman.
 - b) Teknika hauetarik zein da, zure ustez, hizkuntz irakaskuntzaren lehen mailetan erabilgarriena?
2. a) Zergatik azpimarratzen du idazleak hitz berrien ikaskuntzan interesaren premia?
 b) Proposatzen dituen bideak ebaluatu. Hogeitamar ikasleko taldean erabiltzeko modukoak al dira denak?
3. Adibide bat ematen ditu idazleak: *hozka* hitza nola irakatsi ahozko azalpenez. Aukera itzazu beste hiru hitz eta azaldu nola baliatuko zinatekeen teknika horretaz hitz horiekin.
4. Hiztegia irakasteko idazleak aipatu ez duen beste prozeduraren bat azaldu.
5. Hizkuntz irakaskuntzan daukazu esperientziaren arabera, oinarritzko urratsetan nahiko arreta ematen al zaio hiztegia irakasteari? Zeuk aukeratutako testu liburu bat aztertu:
 - behar bezala ziurtatzen al da horrekin hiztegia ikasten dela?
 - zeintzu dira erabiltzen dituen prozedurak?

* Artikuluaren gehigarria. Honako liburu honetan argitaratua: Donn Byrne, 1980, *English Teaching Perspectives*, Harlow, Longman. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

Erreferentzia gehiago

RICHARDS, J.C. (1980): «The role of vocabulary teaching» In: K. Croft, *Readings on English as a second language*, Winthrop.
 LAFOREST, M.H. (1979): «On teaching vocabulary» In: *Lingua e Nuova Didattica*, 8. bol., 2. zenb.

WILKINS, D. (1972): *Linguistics in language teaching*, 4. kapitulu, Arnold.
 HAYCRAFT, J. (1978): *An introduction to English language teaching*, 5. kapitulu, Longman.

TECNICAS PARA LA ENSEÑANZA DEL VOCABULARIO

ISP Nation presenta en su artículo unas cuantas técnicas que pueden ser utilizadas con éxito en la enseñanza del vocabulario. El autor insiste en la necesidad de dotar a las actividades de suficientes elementos de interés y ofrece algunos mecanismos para conseguirlo.

Donn Byrne, por su parte, en el suplemento del artículo, dirige la atención del lector a ciertos puntos del mismo. Apelando a la experiencia del lector, pretende ser una guía de discusión y de profundización en torno al tema.

TECHNIQUES FOR THE TEACHING OF VOCABULARY

In this article ISP Nation presents some techniques that can be effectively used for the teaching of vocabulary. The importance of making the activities interesting is stressed and some ideas to help realize this are offered.

In a supplement to the article, Donn Byrne focuses attention on certain points raised and drawing upon the reader's experience aims to extend and deepen discussion on the issues concerned.

TECHNIQUES POUR L'ENSEIGNEMENT DE VOCABULAIRE

ISP Nation présente dans son article plusieurs techniques qui peuvent être utilisées avec succès dans l'enseignement de vocabulaire. L'auteur insiste sur le besoin d'accompagner les activités d'un nombre suffisant d'éléments d'intérêt, et puis, il expose certains mécanismes pour pouvoir atteindre cet objectif.

Donn Byrne, de son côté, dans le supplément de l'article, dirige l'attention du lecteur vers quelques aspects concrets de l'exposé. Sa collaboration veut être, en même temps qu'il fait appel à l'expérience du lecteur, un guide pour l'analyse et l'approfondissement du sujet.